

# Konta Kontari

Ipuinak euskaraz



GAU  
BELTZA

Daxi eta katu hegalaria







Hau Daxi da, oso sorgin trebea. Basoan inork ez daki berak bezalako edabeak egiten eta beti du konponbide edozein arazotarako.

Sorgin gaua da, gau ezin hobea basoan osagaiak biltzeko, edabe berriak egiteko, baina pufff... paper bat agertu da aurrean. Mmmm... zer dio?:

Daxik, berehala, laguntzera joatea erabaki du. Bere lapiko eta hagaxa magikoa jaso eta martxan jarri da.



Lagundu Daxi!  
Argi katutxoak ura  
edan du aintzira  
sorgindutik eta orain  
airean dabil globo bat  
bezala.  
Amele

Ameleren etxetxora iristen denean, katakumea ikusten du flotatzen airean, jira eta bira. Amelek, begi handi eta malkoz beteriko neskatoak, itxaropenez begiratzen dio.

– Eskerrik asko etortzeagatik, Daxi! – oihukatu du Amelek –. Argik denbora asko daramatza flotatzen, eta ez dakit zer egin.

Daxik irribarre egin eta edabe botila berde txiki bat atera du poltsatik.



EDABE-BOTILA

– Ez kezkatu, Amele. Edabe berezi bat egingo dugu Argirentzat.



- Osagai batzuk beharko ditut:

ilargi-lore bat, goizeko hiru ihintz-tanta eta hontz-luma bat.

Lagunduko didazu aurkitzen?

Amelek gogo biziz egiten du baietz, eta elkarrekin basoan sartzen dira


ILARGI-LORE



Lehenik ilargi lorea aurkitzen dute baso-argi sekretu batean, non loreek izartxoak bezala distiratzten dute.

Gero, bihotz formako hosto batzuen ihintz-tantak biltzen dituzte.

3 IHINTZ-TANTA



Hala ere, hontz luma aurkitzea da zailena.

Bilatu eta bilatu, basoaren alderik sakonenean sartu arte. Isiltasuna beldurgarria da hemen, iluntasunak ez die bidea bereizten uzten.

- Uste dut galdu egin garela - dio Amelek izututa.
- Ez kezkatu, argi pixka bat besterik ez dugu behar.

Daxik bere hagaxka magikoa ateratzen du eta sorginkeria bat ahoskatu ondoren, argi-bola bat irteten da eta haien ondoan jartzen da.



Ordu luzez ibiltzen dira. Begi batzuk atzetik doaz ilunpetan eta azkenean buuu, buuu. Hor dago! Hontz handi eta jakintsu bat, Zuhur da.

– Zer egiten dute hemen haien etxeetatik hain urrun, txikiak? – galdetu du Zuhurrek ahots sakonez.

– Zure lumetako baten bila gabiltza, mesedez – esan dio Daxik erreberentzia batez –. Edabe bat egin behar dugu Argi Ameleren katutxoari laguntzeko.



Zuhur hontzak burua urratzen du bere hegaletako batekin, eta erantzuten du:

– Luma bat emango diet aurrena laguntzen badidate. Nire harri distiratsuetako bat lapurtu didaten sagu bihurriek. Berreskuratuko dute?


BAI

BAI

Zalantzarik gabe,  
Daxik eta Amelek  
baieztu egiten dute.



Saguenk utzitako arrastoak  
jarraitzen dituzte: gazta-mami  
txikiak eta oinatz ñimiñoak.



Kobazulo ilun batera iristean, Daxik hagaxa astindu eta hitz magiko batzuk esaten ditu. Argi urdin distiratsu batek kobazuloa argitzen du, saguak hontzaren harriarekin jolasean ari direla erakutsiz.







– Mesedez, sagu txikiak, harri hori behar dugu hontzari itzultzeko eta horrela nire katutxoari laguntzeko – eskatu die Amelek atseginez.

Saguek, Ameleren aurpegi kezkatua ikusita, harria itzultzen diote.

Daxi eta Amele Zuhur dagoen lekura itzuli eta harri distiratsua ematen diote. Hontzak, esker onez, bere lumarik ederrenetako bat oparitzen die.



Osagai guztiak eskuan, Daxi etxolara itzuli eta edabea prestatzen hasi da.

Astindu bere lapikoa, nahastu osagaiak eta esan du:



Oh oh... Edabea burbuilatzen ari da... eta urrezko distira botatzen du. Ais, badirudi funtzionatu duela! Daxik koilara batean pixka bat hartu eta katutxo hegalaria ematen dio



Argik edabea edan bezain laster, poliki jaisten da lurra ukitu arte.



Pozik korrika joan da Amelerengana, besarkada handi batekin jasotzen duena.

– Eskerrik asko, Daxi! – dio Amelek irribarre distiratsu batez –. Sorginik onena zara

Daxi gorritu egin da.

– Alferrik, beti gustatzen zait basoko bazter berriak lagun on baten ondoan ezagutzea.



Agur esan die Amele eta Argiri, lagundu izanaz pozik. Baina, ez da etxera iritsi eta...  
pufffff...

SORGIN GAUA KATUEN EROMENA.

Akabo!

Daxi!  
Argi xuxurla...  
arbolaren sustrai  
bat jan du eta  
more bihurtu da!  
Amele



# Konta Kontari

**GAU BELTZA 1X01**

**Kimu eta Daxi**

<https://www.kontakontari.com/konta-kontari/gau-beltza/>

**GAU BELTZA 1X02**

**Daxi eta Katu hegalaria**

<https://www.kontakontari.com/konta-kontari/gau-beltza-daxi-eta-katu-hegalaria/>

**IPUIN GEHIAGO GURE WEGBUNEAN**

<https://www.kontakontari.com/konta-kontari>

**IPUINAK YOUTUBEN**

[https://www.youtube.com/playlist?list=PLEXgW3DNhVYn\\_YHKHMXBL14LoC-SAXvUF](https://www.youtube.com/playlist?list=PLEXgW3DNhVYn_YHKHMXBL14LoC-SAXvUF)